

2002-07-20
kioskoa


Ekaitz Agirre

Nork nahi du elkarrizketa? Nork ez?

Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari Juan Jose Ibarretzek bidali dio Javier Arenas Espainiako Administrazio Publikoko ministro berriari gutuna. Publikoki Estatutua betetzeko konpromisoa azal dezala eta Gasteizko Parlamentuak uztailaren 12an onartutako autogobernuaren inguruko txostena nola beteko duen argitzeko eskatu dio Ibarretzek Arenasi. Arenasek ere gutuna bidali dio Ibarretxeri. «Azkeneko adarjotzea», **ABC** egunkariaren arabera. Espainiako «Gorteetan EAJk elkarrizketaren alde egindako adierazpena eta Ibarretzek Arenasekin biltzeari emandako ezetza ez datoz bat. Beste adarjotze baten aurrean gaude», zioen atzoko alean egunkari eskuindarrak.

Deia-k, aldiz, elkarrizketarako gonbita egin duena Ibarretxe izan dela nabarmendu nahi izan zuen editorialean. «Gasteizek argi eta garbi jakin behar du, ordea, norekin eta zertarako eseri mahai baten inguruan. Garrantzitsua da bi aldeek elkarrizketari berrekitea, baina ez argazkian ateratzeko bakarrik». Jeltzaleen egunkariaren arabera, Madrilgo gobernuak ez du elkarrizketarako borondaterik, eta azkenaldian Arenasek egindako adierazpenak «ez dira lasaitzeko modukoak. Hobe luke elkarrizketa eskariari baiezkota erantzutea».

La Razon egunkariak azkenik, Ibarretzek Arenasekin ez biltzeko dituen *arrazoiak* jakinarazi zituen. «Ez zaio interesatzen Estatutuaren garapena, EAJk amaieraraino eraman nahi du haustura eta tentsio egoera, ETaren beso armatuarekin elkarlanean».

martintxo**hizpideak****EAEko langabezia tasa Europaren parera**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako urteko bigarren hiruhileko langabezia datuak eman zituen atzo Eustatek. Europako Batasunaren mailara jaitsi da EAEko langabezia tasa, %7,6ra hain justu. Aparteko lorpen bezala aurkeztu du datu hori Eustatek, eta begiratu batera ez da emaitza kasikarra. Sindikatuen begiekin begiratuta, ordea, lan merkatuaren benetako egoera ezkututzen dute datuok. Langabetuen kopurua jaitsi arren, prekarietatea areagotu egin dela diote. «Gero eta kontratu eskasagoak egiten dira, eta lan baldintzak okerragoak dira», diote.

Ika-mika Gasteizko Udalean

Espainiako Konstituzioaren eta Gernikako Estatutuaren gaurkotasuna berresteaz gain, Gasteizko Udalak atzo erabaki zuen edozein ekitaldiren afixan, Udalak diruz lagundua bada, *ETA ez* leloa agertu beharko dela. Erabakia PP, PSE-EE eta UA alderdien aldeko botoekin onartu zen. Gasteizko PPren eta Alfonso Alonso alkatearen hasierako asmoa urrunago zihoan, eta Udalak diru laguntza ematen dion elkarte eta erakunde orok, idatziz ETaren indarkeria gaitzestea proposatu zuen. Atzo onartutako neurriaren xedea, «egunez egun biolentoak bakartzea» da. *ETA ez* leloa daraman logotipoa Gasteizko Udalen logotipoaren ondoan agertuko da, aurrerantzean.



Israelgo Polizia emakume palestinar baten poltsak miatzen.

Gasteizko udaletxeko plenoko artxiboko irudia.

**Sharonek politika zaharrari heldu nahi dio**

Ariel Sharon Israelgo lehen ministroaren gobernuak iragan asteko bi atentatuen ustezko egileen 21 senide atxilotu zituen herenegun eta atzo bitartean Zisjordanian, eta Gazara kanporatzeko aukera aztertzen ari zen atzo. Hamasek ohartarazi du horrek ez duela atentatu suizida gehiago izatea eragotziko, alderantziz baizik; inor kanporatzen badute ekintzak ugarituko dituela esan du. Palestinako Aginte Nazionalak, berriz, nabarmendu du kanporaketek ez lioketela bake ahaleginei mesederik egingo. Saudi Arabia, Jordania eta Egiptoko agintariak, bitartean, Ekialde Hurbileko gatazkan jarrera «orekatuagoa» eskatu diote Washingtoni.

Basilikaren distira berria

Luzea eta zaila izan da, baina azkenean burutu da Loiola (Azpeitia) basilikaren eraberritzea. Donostiako Orfeoak eskaini zuen bart gauean inaugurazioko kontzertua. Guztira hamalau urte igaro dira basilika zaharberritzeko proiektuari ekin zitzaionetik. Lehen fasean kanpoaldea txukundu ondoren, orain amaitutako bigarren eta azken fasean hiru arlotan gauzatu da basilikaren konponketa: kupularen barruko egitura eta elementu piktorikoen zaharberritzea, behe-oineko paramentu eta zoladuraren zuzenketa eta garbiketa, eta argiteriaren berrikuntza. Hemeretzi hilabete eta milioi bat euro behar izan dira, baina merezi izan duelakoan gaude. XIX. mendean zuen dotoretasuna, distira eta edertasuna berreskuratu ditu Loiola basilikak, euskal ondarearen eraikin enblematikoak.

Euskal Dunon 3.607. zenbakia
Egunkaria

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E. Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabix Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511